

DANEL ELURRETAN

Danel bere ohean zegoen. Ez zeukan ohetik jaikitzeke gogorik, hotz handia egiten zuelako. Azkenean, jaiki eta... zelako ezustekoa! Kalea txuri-txuria zegoen, elurrez beterik!

Danel korrika joan zen sukaldera eta ikusitakoa bere amari kontatu zion. Presaka gosalduta eta bere amarekin kalera joan zen.



Parkera iritsi zirenean, han zeuden bere lagun guztiak.

Batzuk trineoan ibiltzen ari ziren, beste batzuk elurrezko panpina egiten, beste batzuk elurrezko pilotak botatzen...

Danel beraiekin joan zen eta gauza guzti horietan parte hartu zuen.

Primeran pasa zuten goiza!

Erantzun modu egokian ondorengo ariketak:

1. Ipuina, urteko zein urtarotan gertatzen da?
2. Non zegoen Danel?
3. Nola zegoen kalea?
4. Nora joan zen korrika Danel?
5. Norekin atera zen kalera Danel?
6. Nora joan zen Danel bere amarekin?

Esan Egia (E) ala Gezurra (G) diren ondorengo esaldiak:

- a) Klean bero ari zuen.
- b) Danel, bere aitarekin atera zen kalera.
- c) Danelek, ez zuen ohetik atera nahi.
- d) Danel asko aspertu zen parkean.
- e) Parkean ez zegoen inor.

Ordenatu esaldi hauetako hitzak.

zen amarekin Danel joan kalera

--	--	--	--	--

ohean bere Danel zegoen

--	--	--	--

egiten elurrezko Lagunak panpina zenbiltzan

--	--	--	--	--